

ek!

eta kitto!
euskara elkartea

2024ko azaroak 28 · 1334 zenbakia

BASERRIAN ANIMALIEN ERDIAN

eslaban

eslaban.com
T. 943 820 407

Igogailuak Fatxadak Teilatu berritzeak eta aldaketak
Erreformak Proiektuak Konponketa bereziak
Lantokientzako lan bereziak Eraikinen mantentzea

arat.

arat.

HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL

Leku berria,
irribarre bera.


Teknologia hobea,
konfiantza bera.

@arat_klinika

Toribio Etxebarria Kalea, 4 Behea 20600 Eibar 943 201 851

www.aratklinika.com

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



etakitto.eus

Andoni Barandika bazkidearekin batera abereak hazten ditu Jol Igartuak, gero haragia saltzeko. Kaletarrak dira biak, baina baserrira igo ziren orain dela urte batzuk eta hori da euren bizimodua gaur egun. Jolekin egoteko aukera izan dugu Usartza inguruan, bere animalien artean.



ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



Eskutitzak



Hortik esanak

**Martxoaren 8ko lantaldean parte hartzeko gonbidapena**

Badira urte batzuk Eibarren martxoaren 8ko lantaldea martxan jarri genuela, zeinetan modu kolektibo eta koordinatu batean herriko hainbat elkarte eta eragilek (Akebai Plataforma, Arrate Kultur Elkarte, ...eta kitto! Euskara Elkarte, Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea, Eibarko Dantza Eskola, Pagatxa, SD Eibar Fundazioa eta Eibarko Udaleko Berdintasun Zerbitzua) martxoaren 8aren inguruko programazioa antolatzen dugun.

Zuetako askok azaldu diguzue askotan Martxoaren 8aren baitan berdintasunaren sustapenarekin loturiko ekintzak antolatzeko interesa eta prestutasuna; beraz eta mezu honen bitartez, gu ere parte garen lantalde honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, gizarte berdintza, feminista eta justuagoa lortzeko.

Lantaldean hasi dugu dagoeneko 2025eko martxoaren 8ko programazioa antolatzen, bizitza duinak izango duena ardatz nagusi bezala. Zuen elkarrekin bizitza duinak gai horri ekarpen handia egin diezaikezuela argi dugu; beraz, gonbidatuta zaudete denak martxoaren 8ko lantaldean parte hartzera! Jakinaraziko dizuegu egitarau bateratuan sartzeko epe-muga urtarrilera arte izango dela.

Martxoaren 8ko lantaldearen hurrengo bilerarako zuen ekarpenak eta proposamenak ekartzera gonbidatzen zaituztegu: abenduak 2, astelehena, 16:30ean. Ondo izan.

Martxoaren 8ko lantaldea

Twitter zenak eta X deitzera ohitu ere ez garen sare sozialak jo du bazterra. Aspalditxoan ibili gara gaiarekin bueltaka, eta ez da erraza audientziak dakartzan erremintari uko egitea. Hala ere, erabaki dugu ezin dugula egun bat ere gehiago jardun munstroa elikatzen. Informazioa zail dago desinformazioaren algoritmoen tresnan.

GOIENA komunikazio-taldea

Odolean alkohol-tasa litroko 0'2 gramotan lagatzea aproposa da, teknikoki ia ezinezkoa delako 0'0 kopuruarena; radarretan bezala, hobe da margen bat lagatzea. Zergatik? Fruta heldua, esaterako, alkoholean fermentatzen delako: fruta jan eta positibo eman dezakezu. Hor daude baita likorezko bonboiak, alkoholik gabeko edariak deitu arren zertxobait badutenak ere. Gainera, alkoholimetroek ere akats gehiago egin ditzakete neurriak hain baxuak direnean. 0'2ko balore hori 0arekin parekatu dezakegu.

LUIS MONTORO, Segurtasun Bialeko katedratikoa

Zer gertatuko litzaioke planeta honi indiarrek alemaniarrek dituzten adina auto izango balituzte familiako? Zenbat oxigeno geratuko litzaiuke arnasa hartu ahal izateko? Argiago: gaur egun munduak ba al ditu 7.000 edo 8.000 milioi pertsonek mendebaldeko gizarte oparoenetan duten kontsumo eta xahutze maila bera izateko baldintza materialak?

PEPE MUJICA, Uruguaiako presidente-ohia

Datorren astean ez da alerik izango

Datorren asteke zubia dela eta, ez duzue alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea, beraz, abenduaren 13an jasoko duzue.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PASEKO → Urtero leku beretik pasatzen diren hegaztiak, hegazti migratzaileak. “Paseko usuen zain ziran garai baten”.

Pertsonei buruz, eskekoa, ‘vagabundo’. “Paseko arlote bat eginda agertu da”.

Ibiltaria, gaztelera ‘trotamundos’. “Txikitatik paseko gizona izan da: munduko bazter guztietan ibilittakua da”

Emakumea bada, bideetako prostituta. “Andrakume hori gaztetan pasekua ei zan”.

1965

Gabonetako argiak herriko kaleetan

Argazki honek erakusten duen moduan, Gabonetan kaleak argiekin apaintzeko ohitura atzetik datorkigu. Irudian ikusten den kalea San Agustin zeharbidea da. Orduan ere, argi dotoreak ipintzen zituzten jaietarako.

FOTOPLAZAOLA



Farmaziak

BARIXAKUA 29 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)	ZAPATUA 7 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)
ZAPATUA 30 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	DOMEKA 8 EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
DOMEKA 1 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)	ASTELEHENA 9 EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
ASTELEHENA 2 EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)	MARTITZENA 10 EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
MARTITZENA 3 EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)	EGUAZTENA 11 EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUAZTENA 4 EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)	EGUENA 12 EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUENA 5 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	BARIXAKUA 13 EGUNEZ Azkue (T. Etxeberría, 4)
BARIXAKUA 6 EGUNEZ Castaño (J. Etxeberría, 7)	GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Hildakoak

- Itziar Sololuze Ansola. 92 urte. 2023-11-21.
- Fausto Iriarte Garmendia. 91 urte. 2023-11-23.
- Pilar Paredes Balboa. 92 urte. 2023-11-23.
- Milagros Gorostiza Bengoa. 89 urte. 2023-11-25.
- Francisco Aldazabal Arrillaga. 98 urte. 2023-11-25.
- Jose Suarez Vilanova. 88 urte. 2023-11-26.

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20



Azahara Dominguez Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa diputatuak horrelako kanpainen garrantzia azpimarratu zuen asteleheneko aurkezpenean. SILBIA HERNANDEZ

Kaleak apaintzeko argiak piztuta hasi da Gabonetako kanpaina

Eibarko Udalak eta Eibar Merkataritza Gune Irekiak (EMGI) urtero sustatzen duten Gabonetako kanpaina aurkeztu zuten astelehenean, Azahara Dominguez Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa diputatuaren parte-hartzea izan zuen prentsaurrekoan. 100.000 eurotik gorako aurrekontuarekin jarduera-programa zabala antolatu dute.

Herriko merkataritza eta ostalaritza bultzatzea helburu duen kanpaina atzo hasi zen, Gabonetan kaleak apainduko dituzten argiak ofizialki piztearekin batera. Aurkezpenean esandakoaren arabera, “urtero bezala, Gabonetako argiztapenaz eta barrakez gain, Astelena Haur Parkea (Txikipark) ere egongo da. Aurtengo berritasuna Untzagan ipiniko duten Gabonetako izotz-txirrista izango da”. Kanpaina honen merkataritzan eta ostalaritzan duen garrantzia azpimarratu dute, “establezimenduei salmentak

hobetzeko aukera ematen baitie. Aldi berean, kanpainen programatutako jarduerak bizitasuna eta kolorea ematen diote herriari, eta jendea erosketak Eibarren egitera animatzen dute. Zentzu horretan, Eibar Merkataritza Gune Irekiak ezarritako helburu nagusia mantentzen da, alegia, merkataritzaren eta ostalaritzaren ikuspegitik Eibar leku erakargarri gisa bultzatzea eta sendotzea”.

Azahara Dominguez Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa

diputatuaren ustez, “Gipuzkoan, turismoaren goraldi-une batean gaude, eta, horregatik, Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa Departamentutik horrelako ekimenak babesten ditugu. Halako ekimenez, gipuzkoarrei plan-aukera zabala eskaintzeaz gain, garatzen ari garen turismo-estrategian sakontzen laguntzen digute”.

Astelena Haur Parkea eta Untzagan jarriko den txirrista izango dira jarduerarik erakargarrienak. Astelena Haur Parkeak abenduaren 7an irekiko ditu ateak, eta izotz-txirrista, berriz, abenduaren 20an zabalduko dute. Bietara doan sartu ahal izango da, kanpainen parte hartzen duten establezimenduetan emango diren bonuak aurkeztuta. Interesa duten establezimendu guztiek parte hartu ahal izango dute, (943254083 edo 943206669 telefonoetara deituta). Eta barrakak ere ipiniko dituzte, Txaltxa Zelaian, Urkizun eta anbulatorio pareko parkean. Prezioa euro batekoa izango da, bonua entregatuta.

Foru Aldundiaren babesari esker, bestalde, aurten argiztapena indartuko dute: “Batetik, bost metroko errotiluak jarritz Eibarko bi sarreretan, ‘Zorionak’ hitzarekin eta, bestetik, Untzagan bederatzi metroko arbola bat jarritz. Horrez gain, Selfies Gabonak Eibarren izeneko lehiaketa antolatu dugu. Parte hartzeko, selfie bat bidali beharko da, #GABONAK traolarekin. 500 eurotan baloratutako otar bat zozketatuko da, Coliseoaren Laguna 2025 bi txartel, eta Erosi Eibarren txartelak. Halaber, abenduaren 9tik aurrera, erosieibarren. eus-en Oparitu Txartela kanpainako txartel bat eskuratzen dutenek zozketa batean parte hartuko dute eta 500 euroko txartel bat, 250 euroko bi txartel, eta 100 euroko 10 zozketatuko dira”.



Kontxa Laspiurrek hunkituta jaso du Gure Balioak Saria, 100. urtebetetzearen atarian

Martitzenean banatu zituzten Gure Balioak Sariak, Coliseo antzokian, eta Kontxa Laspiur Zabala (1924) euskara irakasle-ohiari eman zioten *Bizitza osoko ibilbidea* kategoriako saria, “bizitza pertsonal zein profesionalean euskararen alde egindako lanean ordezkaturako balioengatik”. Debegesa Debabarreneko Garapen Agentziak eskualdeko Udalekin elkarlanean antolatutako sariak Laboral Kutxaren eta Orbearen babesari izan dute. Edizio honetan, gainera, inoiz baino sari gehiago banatu dituzte, bi kategoria berri gehitu

dituztelako: *Gazte ekimena* kategoriako saria jarduera fisikoak sustatzeko teknologia aktiboak sortzeaz arduratzen den Wellk enpresa eibartarrak jaso zuen. Enpresa sortu duten gazte ekintzaileek 2.000 euro irabazi dituzte, Laboral Kutxaren babesari esker. Eta *Gizarte ekimena* kategorian, berriz, Nagusilan irabazi-asmorik gabeko elkartearantzat izan da saria. Boluntarioen elkarte honek ere 2.000 euro hartu ditu, Orbea enpresaren babesari esker. Kaxa mugimendu eta sormen gu-neak hasi eta amaitu zuen ekitaldia.

Arabian bizi diren eibartarrek XXIV. "San Andres Eguna" ospatu dute Gasteizen

Aurreko zapatuan ospatu zuten San Andres eguna Arabian bizi diren eibartarrek. Ospakizun berezia egin zuten Toloñon, Eibar-Gasteiz Elkartearen egoitzan, hain zuzen ere. 30 lagun inguru elkartu ziren, eta ez ziren falta izan habanerak eta kantu tradizionalak. Esan digutenez, “azpimarratzekoa da Josu Armiño sukaldariaren lan bikaina”. Topaketaren kronika, argazkiak eta bideoak Eibar-Gasteiz elkartearen blogean aurkituko dituzue.



FUNEUSKADI	FUNERARIA MUGICA
24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com	
Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xizillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otaola hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 15
Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao	

Urkizu, 18
943120194

MUGIKA

Harategia - Urdaitegia
Carnicería - Charcutería

Baserriko Harategia



Iazko San Andres egun “berezia” gogoratu dute feministek urtebete igaro eta gero

Iazko San Andres eguna gogoan, Euskal Herriko mugimendu feministak deituta lehenengoz egin zen Greba Feminista Orokorra. Zaintza sistema publiko-komunitario baten aldeko greba feminista orokorra. Zaintza erregimen kolonial, patriarkal eta kapitalista onartuko ez genuela adierazi genuen eta instituzioak, patronala eta gizonak interpelatu genituen, gure kontura negozio gehiagorik egingo ez zutela adieraziz. Bagenekien Eibarren ez zela data erraza greba orokor bat planteatzeko, guretzat ere ez zen bat ere erraza izan, baina hainbat feminista batu, eta denon bizitzak erdigunean jartzeko konpromisoa hartu genuen. Egundako osoko egitaraua antolatu genuen, pikete informatiboetatik hasi, eta frontoiko jaialdia eteteraino. Denetarik entzun behar izan genuen, baita frontoian jaurti zizkiguten

izotzak saihestu ere. Baina batez ere, Eibarko feministek erakutsitako babesarekin geratzen gara”.

Diotenez, benetan esanguratsua izan zen egun horretan herriko eragileek erakutsitako konpromisoa, baina ez dute Udalaren erantzuna ahaztu “Urtebete igaro da, baita ere, Eibarko Udalarari ‘zaintza edo festa?’ planteatu genionetik. Eta Jon Iraola alkateak ‘Eskerririk asko, hurrengoa?’ erantzun zigun”. Urtebete pasatu eta gero, zaintzarekiko konpromisorik hartu ez izana aurpegiaratu nahi diote Udalarari: “Bai Eibarko Udalak, bai Eusko Jaurlaritzak, gure borrokarari aitortzarik eman ez, gurekin mahai batean elkartzea baztertu eta, gainera, gure termino eta borroka erabiltzen saiatu dira, proposamenak edukiz hustuz eta sistema betiketuko duen proposamenak aurkeztuz. Gaur, urtebete pasa den honetan, berriz ere erantzukizunez jokatzeko exigitzen dizuegu”.

Gabonetako bigarren eskuko azokarako izena eman daiteke

Udalak antolatuta Gabonetan egingo den bigarren eskuko azokan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Azoka Errebal Plazan izango da, abenduaren 14an, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea abenduaren 11ra arte egongo da zabalik. Beti bezala, salmentarako postua norberak ipintzeko aukera egongo da, edo bestela antolatzaileei laga ahalko zaizkie gauzak, berriak salgai ipintzeko. Informazio gehiagorako www.merkabi.eus/ eibar helbidean begiratu edo 943 670 29 telefonora deitu.



Abenduaren 5ean inauguratuko dute Basagunea Errebal Plazan

Hamairu urteko ibilbidearen ondoren, datorren astean bide berria hasiko du Azataporrua Kontsumo Elkarteak Errebal Plazan, izen berriarekin, gainera. Aurrerantzean Basagunea deituko den taldeak Errebalgo Merkatu Plazara base-rritarren aldamenera eramango du bere jarduna. Elkartearen dena berriaren inaugurazioa abenduaren 5ean (eguna) izango da, 19:00etatik 21:00etara, eta eibartar guztiak bertara gonbidatu nahi dituzte.



**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

Ane Mendiá
970 kol. zkia.



INDIBA TERAPIAK
ARTIKULAZIO TEMPORO-
MANDIBULARREKO ARAZOAK
TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK
K-STRETCH KLASAK BAKARKA
HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA
OROKORREAN
ERGONOMIA HOBETZEKO KLASA
PERTSONALIZATUAK



Arragueta, 20
943 530642

ane_mendia@hotmail.com



Gaiarekin arduratuta dauden era guztietako herritarrek sortu dute plataforma, indarrak batu eta arazoa konpontzeko asmoz. SILBIAHERNANDEZ

Etxegabekotasunari End herri plataforma eratu da

Martitzen iluntzean Arrate Kultur Elkartean egindako agerraldian eman zuten ezagutzera Etxegabekotasunari End izeneko plataforma. Aurkezpenean esan zutenez, “gaur egun, orduan bezala, etxegabetasuna konpondu gabe dagoen gaia da gure gizartean. Beraz, indarrak batu nahi ditugu, gure kaleetatik eta auzoetatik errealtate bidegabe hau ahal den neurrian desagerrarazteko. Helburu nagusia etxegabetasun-egoeran dagoen inork kalean lo egin behar ez izatea da. Era berean, hain bidegabea den errealtate hau aldatu nahi duzuen guztioi, plataformara hurbiltzeko deia egiten dizuegu. Beharrezkoak zarete, eta ongi hartuko zaituztegu”.

Plataformaren izenak esanahi bikoitza duela ere aipatu zuten. Batetik, aurtengo udaberrian ixtea erabaki zuten Eibarko Neguko Dispositiboaren siglek osatzen duten

berba da, “hain zuzen ere horren itxieragatik datorrelako plataforma honen sorrera”. Eta, bestetik, ingelesez berba horren esanahia amaiera da, “eta hau plataformaren helburuetako bat definitzera dator: etxerik gabeko pertsonen egoerari amaiera ematea, alegia”.

Urteko 365 egunetan zabalik

Era berean, argi laga nahi dute beraien helburua ez dela bakarrik negurako, aldi baterako aterpetxea zabaltzea baizik: “Aterpetxea urte osoan, 365 egunetan funtzionatu-ko duen errealtatea izatea nahi dugu”. Lehen urratsak Eibarren eman arren, eskualdeko gainerako udalerrietan hazteko bokazioarekin sortu da plataforma.

Azken hiru neguetan Eibarren martxan egon den dispositiboan ematen zen zerbitzuaren garrantzia ikustarazteko datuak eman zituzten: “Eibarko Udalak kudea-

Etxegabetasunaren arazoari konponbidea emateko bokazioarekin eratu berri den plataformak Bertol Brechtek 1931n idatzi eta 1989an Mikel Laboak *Gaberako aterpea* abestian musikatu zituen bertsoak gogora ekarrita ekin nahi izan dio bere bideari.

tuta, 2021eko abenduaren 1ean zabaldu eta 2022ko apirilaren 15ean itxi zen dispositiboa lehen urtean. Tarte horretan, 101 lagun hartu zituzten bertan, batez beste 13 pertsona egunero, eta egonaldi ertain/luzeko hiru plaza artatu zituzten”. Martxan egon den beste bi urteetan artatu dituztenen kopuruak gora egiten jarraitu du: aurreko neguan 188 lagun artatu zituzten.

Helburu nagusiak lau puntu-tan laburbildu daitezke: “Gizarte zerbitzuen zorroan adierazten den aterpetxe zerbitzua zabaltzea; Eibarko herrian kale egoeran dauden pertsonentzat zerbitzua urte oso-rako zabaltzea; etxegabetasunean dagoen inori oinarritzko mantenua, higiena eta lotarako segurtasuna falta ez izatea; eta Gizarte Zerbitzuetan kale egoeran dauden pertsonak artatzea, errolda baldintza izan gabe”.

Hurrengo pausoa gaur bertan emango dute: Eibarko Udalean egingo den Osoko Bilkuran, herritarrek galderak egiteko izaten den tarte baliatuko dute, beraien eskaerak egiteko, eta 19:00etan Untzagan elkartzeko dei egiten dute.

Matxismoaren kontrako ekitaldiz betetako eguna

Indarkeria Matxista Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin bat eginez, jarduera ezberdinak egin ziren egun osoan. Goizean *Matazak Ehuntzen Indarkeria Matxistaren Aurka* ekintza kolektiboa egin zen Untzagan. Eta, arratsaldean, *Indarkeria matxistaren aurrean parte-hartze kolektiboa* goiburuari jarraituta, elkarretaratzea egin zen lehenik eta, ondoren, eragile feministek antolatutako manifestazioak zeharkatu zuen herria.

Argazki gehiago elkarretaren webgunean:





Artaldea Arraten. Euxebik kontatzen duenez, lehen Aginagako etxe guztietan zeuden ardiak, eta denek egiten zuten gazta esnearekin.

INDALECIO OJANGUREN FUNTSA-GURE GIPUZKOA

Gaztagintza. Gazta egitea emakumeen lana izaten zen. Gazta zelan egiten zuten. Gaztanontzia zelakoa zen. Aginaga auzoan denek egiten zuten gazta.

Gaztagintza: tresnak, prozesua, eta abar

Euxebi Gisasola Aldazabal
(1922 – 2008)



Aginagako Zumaran baserrian jaiotakoa. Ama Arrate Mugitzaberri baserrikoa zuen. 8 urte zituela, Aginagako eskola egin zuten eta bertan egin zituen ikasketak Gerra Zibila hasi zen arte. Sasoi hartan Euxebik 14 urte zituen. Garai gogorra zen, baina Gisasolatarrak baserrian gelditu ziren. Ezkondu eta lau seme-alaba izan zituen. Eibarko euskararen gaineko hainbat ikerketa eta liburutarako eman du bere lekukotasunak.

Euxebi Gisasolari grabatutako pasarteetako baten transkripzioa

(...) Ba, gaztaia izeten da, jaitxi ardi-esnia, ezta? Ta gabekua ta goizekua edo... batera. Eske gabian ta goizian.. [eske eitten] zian, ba, jeneralmente, baten bixek. Gabekua hoztuta egoten da, ta goizekua epeltxuagua, baiña pixkat epela, larregi barik e! Tamaiñotxo bat, eskuakiñ edo [hatzapartxua] edo zeozekin igarten jako tamaiñua, ezta? Ta gero emoten jakon liarra. Eta harek [bihar] zittun ordu erdi-ordu bete edo zertzen, gogortzen, ezta? Ta gero gogortutakuan, apurtu. Ta gero apurtutakuan, ba, ipintzen jakon zeozer... zeozer, pisudun gauza bat, ezta? Gaiñian, ta bajatu eitten zan behera. Bajatzen zan, ba, total bajatzen zan. Ta haxe bajatutakuan, urdaitu edo... ze esango dotsut ba? Gogor eitten zanian, ba, ebagi kutxilluakin trontzuek eta bota zerera, gaztanontzira ta danak etara, ahal dien danak etara! Ta gero azkenian, trapuak be ipiñitta eukitzen genduzen, trapu fiñak, ta trapuetan zertu, ba, sartu gaztanontzixan ta hantxe, ba, egun bat... edo holako baten euki. Gero etara ta gero siketu (...).

GOIKO - LUZ

OSPATU,
BIZI,
GOZATU
Sanandresak!

Otaola hiribidea, 13

www.goikoluziluminacion.com

943200883

Eibarko PROFESIO LIBERALAK



ABOKATUAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2

Tel. 943 20 41 94

Fax. 943 82 00 06

egurenyasociados@gmail.com

AHOLKULARITZAK

GAURVE

Fermin Calbeton 13-15

Tel. 943 20 24 61

www.gaurve.es

consultores@gaurve.es

GESTILAN

Zezenbide 4

Tel. 943 20 70 02

www.gestilan.es

gestilan@gestilan.es

ETXE ADMINISTRAZIOAK

CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.

Tel. 943 12 80 55

www.cristinabaz.com

cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

San Andres egunerako beroketak eginda

San Andres Bertso Jaialdiaren hogeita hamar-garren edizioa biribiltzeko moduko saioa egin zuten bertsolariek barixakuan, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako San Andres Bertso Jaialdian. Aurretik, bertso-paper lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkien Ekaitz Juaristi elkarte-ko presidentek. Helduen mailan, lehen saria Urko Egaña azpeitiarrak eraman du aurten ere, eta bigarrena Aimar Goenaga eibartarrarentzat izan da. Eta 16 urtetik beherakoen artean, J.A. Mogel ikastolako Libe Arizagak eta Ekain Gabiolak irabazi dituzte lehen eta bigarren saria, hurrenez hurren.

Zapatuan, bestalde, egun osoan ospatu zen XX. Txistorra Eguna, Eibarko Txirrindulari Elkartearen eskutik. Amaieran egindako zozketan, **Sari Nagusia 1.276 zembakiari** egokitu zaio. **Tarteko Helmugak**, berriz, **1.202, 1.245, 1.151, 1.055 eta 0092** zembakiek eraman dituzte. Eta **Sari Bereziak** zembaki hauentzat dira: **130, 183, 204, 243, 266, 284, 383, 569, 628, 685, 751, 829, 911, 924, 939, 941, 1.000, 1.020, 1.063, 1.065, 1.102, 1.111, 1.143, 1.193, 1.200, 1.219, 1.222 eta 1.274**. Lehen erreserba 193 zembakia da, eta bigarren erreserba 581. Sari guztiak www.clubciclistaeibarres.org web orrian kontsultatu daitezke (sariak abenduaren 9tik 13ra jaso ahal izango dira, elkartearen bulegoetan).

Eta domekan maila handiko sukaldariak elkartu ziren Untzagan, Udalak antolatutako **XXX. Bakailao Txapelketan**. 42 bikotek hartu zuten parte eta **lehen saria Rafael Martinez eta Roxana Surisek** osatutako bikotearentzat izan zen. **Bigarren tokian Jesus Asurmendi eta Martin Mandiola** geratu ziren, eta **hirugarren saria Luis Ayuso de la Fuente eta Margarita Iparraguirre**rentzat izan zen.

BAKAILAO TXAPELKETAKO ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA.

Argazki gehiago elkartearen webgunean:



Bertso jaialdiko bideoak YouTubean ikusgai







Bero-bero ospatuko ditugu aurten San Andres jaiak



Osagai onenak elkartu dira aurtengo San Andres jaiak ospatzeko. Izan ere, barixakuan izango da bezpera eta zapatuan egun handia, eguraldiaren aldetik giro eguzkitsua eta epela izango dugu, eta hori gutxi balitz, Eibarko Udalak eta Jaixak Herrixak Herrixandakok hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Surik ez da egongo, baina berorik ez da faltako aurtengo Sanandresetan.

Azkeneko asteburuetan San Andres jaiekin zerikusia duten ekin-tzak egin badira ere, asteburu honetan iritsi da benetako festa herrira. Hain zuzen ere, barixakuan hasiko da Eibarko Udalak Sanandresetarako prestatu duen egitaraua, hau da, San Andres bezperaren gauean. Izan ere, 23:00etatik 02:00etara Muxutruk erromeriak ikuskizuna eskainiko du Untzagan jarri duten karpan.

Musika saioaz gain, Untzagan SexuBizi-Gune Morea jarriko dute hilaren 29an eta 30ean, 00:00etatik 03:00etara, sexu aholkularitza eta eraso matxisten aurkako babes gunea eskaini asmoz. Horrela, sexualitateari buruzko informazioa jaso nahi baduzu (erotika, plazera, mitoak, orientazioa, nortasuna, infekzioak, gaixotasunak...), kondoiak behar badituzu, aholkularitza profesionala behar baduzu, sexu indarkeriari buruzko informazioa jaso nahi baduzu edota sexu erasorik jasan baduzu, babes gunea aurkituko duzu bertan.

Azokaren 45. edizioa

San Andres Egunean, zapatuan, goizean goizetik emango zaio hasiera egitarauari nekazal azokarekin. Hain zuzen ere, 09:30etik egongo dira postuak zabalik Untzagan eta Txaltxa Zelain jarritako karpetan, arratsaldeko lehen orduetara arte.

Azokaren 45. edizioa izango da aurtengoa eta Altzolako, Aramaioko, Markina-Xemeingo, Sorluzeko eta beste hainbat tokitako 42 ekoizle egongo dira postuetan ezitia, barazkiak, fruta, sagardo eta txakolina, ogia, loreak, gazta eta bestelako produktuak saltzen.

Azokaz gain, urtero ohikoa izaten da abereen erakusketa. Fermin Calbeton kalean eta Eibarko Bizikleta Plazan egongo dira behiak, astoak eta bestelakoak.

Goizean zehar ekintza gehiago egongo dira. Hala nola, 11:30ean, Usartza Txistulari Bandak kalejira egingo du; 12:00etan, Aizkolarien XX. Txapelketa egingo da Errebal Plazan; 12:00etan ere, bertsolariek eta trikitilariak emanaldia eskainiko dute, kasu hone-tan Untzagan; 12:30ean, Plazara Dantzara erromeria egongo da Kezka Dantza Taldearen eskutik, Jainaga eta Narbaiza trikitilariak lagunduta, Untzagan; eta 13:15ean, San Andres azokaren, eta pintxo eta kartel lehiaketan sari banaketa egingo da.

Musika zapatu iluntzerako

Arratsaldean eta gauean musikaren txanda iritsiko da. Hasteko, Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta, DJ Galtzagorriekin karropoteoa egongo da 19:30ean hasita. Gero, herriko kaleetan buelta eman ondoren, 21:30ean, Zatekeen taldearekin erromeria egongo da Untzagako karpan eta ondoren, 23:30ean, Ganibet taldeak kontzertua eskainiko du. Gainera, baserritarrez jantzita joatea eskatu diete herrikideei eta, horrez gain, edozein erasoren aurrean autodefentsa feministaz erantzungo dutela adierazi dute.


Jaixakek antolatutakoaren ondoren, 00:40an, bi DJ eibartar izango ditugu 03:00ak arte: Gorku eta Beato.

Sanandresak tabernetan ere

Herriko tabernentzat ere egun handia izaten da San Andres eta euretako batzuetan egitarau berezia pres-tatu dute jaiak ospatzeko.

San Andres bezperan emanaldi bikoitza egongo da 19:30etik aurrera ZaiZoi tabernan. Bertan, Eskarmien-to punk-rock taldea eta punk taldeen (Ramones, Misfits, Eskorbuto...) bertsioak egiten dituen Spunkgiforms izango dira. San Andres Egunean, bestalde, Emepe-bost talde eibartarrak joko du 19:00etatik aurrera.

Musika elektronikoaren zaleek ere izango dute go-zatzeko aukera. Izan ere, 29an Berruetta, Julen Lujan, Unai Santos, Julen Oru eta Txima izango dira Belekon, 00:00etatik 05:00etara musika jartzen, eta Katu Ka-len 30eko gauean egongo da festa handia, 00:00etatik 04:00etara DJ Nick White egongo baita.



Plater nagusia zapatu goizeko azoka izango den arren, ekintza ugari prestatu dituzte astebururako



Goian, San Andres jaietako kartela Amaia Bazterriaren eskutik. Behean, Jaixak Herrixak Herrixandakok prestatutako egitaraua.

“Garrantzitsua da baserria eta abeltzaintza martxan egotea, eta herriarentzat elikadura bertatik sortzea”

JOL IGARTUA IRIONDO • Abeltzaina



Kalea laga eta mendira jo zuen Jol Igartuak orain dela urte batzuk. Hasieran lagun batzuekin bizi izan zen Izua baserrian, eta baserriko bizimoduak harrapatu zuen bertan. Animaliak hazten hasi zen eta Itturua Goikoa baserrira jo zuen gero, Andoni Barandika lagunarekin behiak, txahalak, behorrak eta txerriak hazi eta haien okela saltzeko.

Mandiola bailara dute bizileku Jol eta Andoniren animaliek. Egun osoan euria egin ondoren, euren gana jo dugu arratsaldeko eguzki izpiekin, eta Usartzako lasaitasunean Jol agurtzen dute bertara heldu dela ikusten dutenean. Lotura berezia dutela atzematen da.

Kalea laga ondoren, urteak daramatzazu baserrian bizi- zuten. Nola ikusten da bizitza hemendik goitik?

Mendia beti gustatu izan zait, animaliak eta abar, eta niretzat aldaketa ona izan zen baserrira igotzea eta bertan lan egitea.

Bizitzaren erritmoan aldaketa handia igarri zenuen?

Gure asmoa eta buruan genuen ideala gora igo eta lasaigo bizitzea zen, beheko presio barik (gu tailerrean ibilitakoak gara eta badakigu hori zer den), baina behin lanean hasita ikusi genuen hemengo martxa handia dela. Baditu gauza onak (adibidez, animalia artean bizitzea, naturan...), baina oso dependientea da eta asko eskatzen du.

Kaletarrak eta fabrikako langileak izanik, nolatan erabaki zenuten hori guztia utzi eta baserrira igotzea eta bertan lan egitea?

Kasualitatez eman zen. Hasieran, lau-bost lagun Izua-

ra joan ginen bizitzera eta ortuarekin eta oiloekin hasi ginen, eta gero txerri batzuk eduki genituen. Agroekologiako ikastaro batzuk eman genituen, pikatzen joan ginen eta poliki-poliki gauza gehiago egiten hasi ginen: behi bat ekarri bi txahalekin, beste baserri batera joan (Itturua Goikoa), eta horrela orain arte.

Beraz, gauzak egin ahala joan zara baserriko lana ikasten?

Bai. Hasieran tailerreko lanari eutsi nion, baina gero laga egin nuen eta gaur egun Andoni eta biok burubelarri gabiltza baserriko lana egiten.

Esan duzun bezala, baserriko bizitzaren inguruko ideal bat zenuen, baina nolabaiteko talka sentitu zenuen errealitatea ezagutzerakoan?

Lehenengo sektorea ez dago oso momentu onean, nahiko momentu kritikoa dagoela esan daiteke, eta bertatik bizitzea ez da erraza, baina horren aldeko apostua egin genuen eta hortxe gabiltza. Batzuetan pentsatu izan dugu hau guztia pixka bat zoroa dela eta tailerrera itzuli beharko ginakeela, baina beste batzuetan poztasuna ematen dizu eta egiten dugunarekin harro sentitzen gara. Pentsatzen dut garrantzitsua dela baserria eta abeltzaintza martxan egotea, eta herriarentzat elikadura bertatik sortzea. Pentsamendu horrek aurrera egiten laguntzen digu.



Usartza inguruan ibili dira egunotan Jol eta Andoniren behiak. EKHI BELAR

Lehen sektorearen egoera kritikoa dela esan duzu. Zergatik?

Oso zaila dago baserriaz bizitzea. Orain artean egoera oso zaila izan da baserrian bizi direnentzat eta abeltzaintzat. Beti entzun izan dugu 24 orduz egin behar dela lan, asteburu librerik ez dagoela, ezta oporrik ere, eta gainera ez dagoela oso soldata onik. Ondorioz, baserrian ez dago erreleborik. Baserriko jende gehiena jubilatzeko dago eta oso gazte gutxi dago.

Beraz, Andoni eta biok zarete paradigma horren kontrako aldea. Beste batzuentzat eredu izan zaitezke.

Bai, baliteke. Saiatu egin ginen eta 10 urte daramatzagu Iturrua baserrian behiekin. Bertatik bizitzea lortu dugu.

Inguruan ezagutzen duzue antzeko kasurik?

Hemen bueltan badago jende gaztea. Eibarren badaude beste 4-5 baserri bertatik bizi direnak, Abadiñon artzain batzuk... Badaude batzuk, baina askoz ere gehiago izan zitezkeen erreleboa egongo balitz.

Zuek baserriko bizimodua ikasi behar izan duzue, baina kaletik etorrira gauza berriak ere ekarri dituzue?

Nik hemen ikasi dut dena. Bertako jendeak erakutsi

“Hemen bueltan badago jende gaztea. Eibarren badaude beste 4-5 baserri bertatik bizi direnak, Abadiñon artzain batzuk... Baina gehiago izan zitezkeen”

dit behiak nola maneiatu, erditzeak nola egin, txahalak nola loditu, mendian nola lan egin... Baina guk beste gauza batzuk ekarri ditugu. Adibidez, asteburuetan jai edukitzea, oporrak hartzea... Hori guztia kontuan hartuta, beste modu batean lan egin daitekeela pentsatzen dut eta gazteentzat erakargarria izan daitekeela. Beharrezkoa da zaintza hori, mendiak lagata daudelako, abereak ibiltzen ez diren tokiak zikin daudelako... Eta horrek ekartzen du lehortek daudenean erretzeko arrisku gehiago egotea, besteak beste. Herri moduan garrantzitsua da baserriak martxan edukitzea.

Horretarako, nahia eta gogoia beharrezkoak dira, bai-

BIDEOA



na baita beste arlo batzuk ere. Behar besteko laguntza jasotzen duzue?

Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Europatik laguntzak jasotzen ditugu, bestela ezinezkoa izango litzateke bertatik bizitzea. Azken finean, egiten den lan batengatik jasotzen ditugun laguntzak dira. Hau da, adibidez, 20 hektarea garbi badituzu, hori beste gauza batzuetarako onuragarria da, eta horregatik ordaintzen digute. Beraz, diru-kopuru bat ordaintzen dute mendiko lorazain izateagatik, modu batean esatearren. Bestalde, okelari dagokionez ere, jasotzen dugu zerbait. Izan ere, okelagatik guri ordaintzen diguten prezioa ez da benetan okela horrek balio duena. Hau da, saltzen dugun okelaren kostua askoz ere handiagoa da eta, horrela salduko bagenu, bere prezioa zerutan egongo litzateke eta herritarrek ezingo lukete erosi. Beraz, okela hori erosi ahal izateko prezioak zehazten ditugu, eta atzetik laguntzak etortzen zaizkigu hori jasagarria izan dadin. Hori bai, uste dut garrantzitsuena gure produktuek merkatuan balore bat edukitzea eta bertatik bizitzea izango litzatekeela, laguntzarik jaso gabe.

Zuen kasuan, gainera, filosofia jakin bati jarraitzen diozue: ekoizpen ekologikoa, jasagarria eta kalitatezkoa. Horrek nola baldintzatzen du zuen negozioia?

Gure produktuak salmenta zuzenean saltzen ditugu eta jendeak garrantzia ematen dio okela ekologikoa izateari. Gure produktuak pixka bat garestiagoak dira ekologikoak izateagatik, guri ere gehiago kostatzen zaigulako animaliak haztea, baina hori da gure ideologia, animaliak modu ekologikoan hazi behar direla uste baitugu.

Horrek produktuaren kalitatea ere bermatzen du?

Zigilu ekologikoak animalien ongizatea bermatzen dugula erakusten du (horretarako hainbat baldintza bete behar ditugu, besteenak baino zorrotzagoak) eta animaliek jaten duten belarrak kimikorik ez dutela, besteak beste. Produktua hobea izango da. Bezeroek behintzat oso balorazio ona egiten dute. 30 familia ingururekin hasi ginen eta hilero gure okela kontsumitzen duten familia gehiago ditugu orain. Gainera, Mur-Mur



“Saltzen dugun okelaren kostua askoz ere handiagoa da eta, horrela salduko bagenu, bere prezioa zerutan egongo litzateke”

jatetxean (Arragueta kalean) eta Basagunean (Errebal Plazan zabalduko duten kontsumo elkartearen) ere gure produktuak banatzen ditugu.

Etorkizunera begira zein asmo duzue?

Gaur egun 24 behi ditugu eta euren txahalak eta kanpotik ekarritako batzuk loditzen ari gara. Behorrek ere baditugu. Mendira botatzen ditugu eta neguan jaisten ditugu, moxalak kentzeko. Eta, azkenik, euskal txerriak ditugu eta txerrikumeak hazten ditugu. Orduan, gure asmoa loditzen ditugun txahalak hemen jaiotzea eta behi kopurua igotzea da. Salmenten arabera egingo dugu hori, beti egin dugun moduan.



Ondo pasa Sanandresetan!

BULEBÚ
Jatetxea

Telf. 843 69 90 11 San Juan kalea, 19

Waterloo

Julian Etxebarria, 4

T. Etxebarria, 8

BAR BUENOS AIRES

KALAKA

Untzaga, 5

KATU
k a l e

BAR KILIKILI
@KILIKILI_BURGER

GOSARIAK / PINTXOAK
EGUNEKO MENUAK / AFARIAK
MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK

BAR KILIKILI
@KILIKILI_BURGER

☎ 943 202401 Ibarkurutze, 12

ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA

FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igandetik ostegunera (20:00-22:30)

KAZIDAK • SANDWICHAK • BOKATAK
HAMBURGESAK • MEXIKARRAK

Plaza Barria, 6. / 943 121 255 Anitxatu eta doitu!!!

UNTZAGA PLAZA, 8
TEL. 843670818

La Espuela

FOOD & DRINK

Zatuz gure sukaldetiki ateratzen diren platerak eta momentuan egindako pintxo berriak baratzean, espazio eta giro atseginean, eta jatorri-deitura ezberdinetako ardorez lagunduta.

Bidebarrieta 39an
UZKIZUO BARRERAN ONDOAN

baratze

Tel. 943 84 55 03

Arrosau, bazkaldu, merendau eta afaldu

LU SAI

@lusairestaurante
747 451 865
ERREBAL PLAZA



BIDEOA ►

zarelako gara

BIDEOA
IKUSTEKO

...eta kitto! Euskara Elkarteak Zarelako Gara **gizarteratze-kanpaina** garatzen dihardu otsailaz geroztik. Eibartarrek euskara elkarteak eta bere jarduna hobeto eta gehiago ezagutu dezatela da kanpainaren helburua eta horretarako hainbat ekimen eta ekintza egin dira urtean zehar. Horien artean dago azkeneko asteetan ezagutzera ematen ari garen **elkarrizketa-sorta**. Davide Cerchi eta Zalua Urain elkartu genituen aurreko astean euskararen eta elkartearen beraren egoeraren inguruan gogoeta egiteko, eta oraingoan herriko hiru gazte elkartu ditugu. **Joanes Lazarobaster, Uxue Baroja** eta **Manex Sarasuak** gure hizkuntzaren egoera nola bizi duten kontatu digute: **euskararen egoera gure herrian**, zein kezka eta ardurak dituzten, zer egin daitekeen euskararen egoera hobetzeko, zer den eurentzat ...eta kitto!, zein ekarpen egin dituen elkarteak eta beste hamaika kontu partekatu dituzte gurekin.

Egin zaitez bazkide!



Etxeak zure esku

Inmobiliarien gehigarria

Eibarren gaur egun daukagun etxebizitzaren eskaintza oso zabala da. Bigarren eskuko etxebizitza zein berria nahi izanez gero, herrian ditugun inbiliarrietara jotzea besterik ez daukagu. Horietan diharduten profesionalak behar dugun informazio guztia emango digute: etxebizitzaren kokapena, orientazioa, metro karratuak, ezaugarriak, zein egoeratan dagoen, prezioa... Eskuartein daukagun gehigarri hau lagungarri izango zaizuela uste dugu. Eta, informazio gehiago nahi izanez gero, konpromisorik gabe joan zaitezke sektoreko adituengana: zeuen premiei erantzungo dizuete.

		www.aukera-inmobiliaria.com 943 12 13 95 Bidebarrieta 29	
Produktu hauek Aukera Inbiliarriakoak dira ESKLUSIBAN			
			
Errebal Ref. 2692 5 logela, 2 komun, balkoi. Igogailua. Eguzkitsu eta argitsua. Bizitzera sartzeko. Kontsultatu	Ego-Gain Ref. 2680 3 logela, 2 komun, 2 balkoi. Garajea eta ganbara. Igogailua. Kalefakzioa. Jantzita. Kontsultatu	Bidebarrieta Ref. 2715 2 logela, 2 komun. Irisingarritasuna. Igogailua. Kalefakzioa. Lehortegia. Bizitzera sartzeko. Kontsultatu	Sautxi Ref. 2660 3 logela, 2 komun, 2 balkoi. Garajea, 2 ganbara. Igogailua. Kalefakzioa. Altzariekin. 199.000€
			
Jardiñeta Ref. 2709 2 logela, komunak. Igogailua. Kalefakzioa. Irisingarrit. Trastelekua. Argitsua. Jantzita. 136.000€	Bustinduiarren Ref. 2637 2 logela. Leihoak aldatuta. Kalefakzioa. Bista eta orientazio bikainak. Berritzeko. 120.000€	Muzategi Ref. 2587 2 logela. Trastelekua. Irisingarritas. Kalefakzioa. Igogailua 0 kotara. Garajea aukeran. 215.000€	W. Orbea Ref. 2716 3 logela, komunak, balkoi handia. Trastelekua. Oso argitsua. Berritzeko. 78.000€



Erdigunea Ref. 181

Berriztua. 2 logela.
Iggailua 0 kotan.
168.000€



Arane Ref. 146

2 logela, 2 komun. Balkoia.
Trasteroa. Garajea. Bista irekiak.
Kontsultatu



Erdigunea Ref. 211

3 logela, 2 komun. Terraza.
Garaje ibdia aukeran.
Kontsultatu



Erdigunea Ref. 106

2 logela, 2 komun. 2 balkoi.
Espazio zabalak.
Kontsultatu



Urkizu Ref. 155

3 logela, 2 komun. Pisu altua,
bistekin. Iggailua 0 kotan.
189.000€



Jardiñeta Ref. 159

2 logela. Balkoia. Iggailua.
127.000€



Erdigunea Ref. 204

3 logela, 2 komun.
Balkoia. Iggailua.
260.000€



Erdigunea Ref. 170

Berritzeko. 101 m².
240.000€



Erdigunea Ref. 200

Bikaina. Etxebizitza zabala
eta eguzkitsua.
Kontsultatu



Erdigunea Ref. 210

Gutziz berriztua. 2 logela.
119.000€



Legarre Gain Ref. 157

Berritzeko. Oso eguzkitsua.
115.000€



Errebaletik minutura Ref. 202

Bikaina. Bista irekiak.
Eguzkitsua.
235.000€



Erdigunea Ref. 195

Espaziotua. 3 logela,
2 komun. Trasteroa.
Kontsultatu



Estaziño Ref. 206

Apartamentu handia,
terrazarekin. Trasteroa.
158.000€



Mutiola Ref. 129

3 logela. Trasteroa.
Iggailua 0 kotan.
129.000€



VPO-ko etxebizitza Ref. 246

Terraza handia. 2 logela.
Trasteroa. Garajea.
163.000€



Gestio inmobiliarioa:

alokairuak, erosketak,
salmentak, tasazioak,
kontratuak...

**ETXEBIZITZA,
GARAJE
eta LOKALEN**
Salerosketa
eta alokairua

Galdetu zure etxebizitzaren
Finantziatorako Bidea:
mailegu hipotekarioak,
pertsonalak...

Informazio Pertsonalizatua

32 urtetik goragoko esperientzia

Toribio Etxebarria, 1
943 20 03 58
fincas@euki.com
www.euki.com



API 323



SORALUZE

INMOBILIARIA

611480198

- Etxebizitzak eta lokalak bilatzen ditugu **Eibar, Ermua eta Gipuzkoa osoan**
- Zure etxea salduko dugu **1-3 hilabetetan**
- Bezero **zerrenda luzea** dugu
- **Ez-ordaintze aseguruak** gaur egungo kontratuentzat
- Pisuak saltzen ditugu **inkilinoarekin**

OSCAR SOUSA (INMUEBLE-AGENTEA)

Errebal, 15
-EIBAR-

inmosoraluze@outlook.es
www.inmosoraluze.com



Armagin

77 m². Berrituta. 3 logela, komuna. Terraza. Igogailua.
159.000€



Karmen

102 m². Ia berria. 3 logela, 2 komun. Terraza. Igogailua 0 kotan. Garajea aukeran. **223.000€**



J.A. Mogel

75 m². 3 logela, komuna. Despentsa. Garbara. Fatxada aislatua. Igogailua 0 kotan. Sartzeko bezala. **140.000€**



ELGETA

104 m². Berrituta. 4 logela, 2 komun. **145.000€**

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Tel./Faxa. 943 203 333 www.Inmoarregi.com

L L LARRAGEST
AGENCIA INMOBILIARIA
697 258 966 943 200 012

Eibarko zure konfidantzazko inbiliarria

dp donpiso
FIDATU ZAITEZ PROFESIOALETAN BAKARRIK

Isasi, 16 EIBAR
M. Valdespina, 12 ERMUA

donpiso@donpisoelbar.com
www.donpiso.com

Zure etxea saltzeko modurik azkar, erraz eta eraginkorrena

943 82 05 10 / 618 769 839



Azken etxebizitzak Errekatxun

BEREHALA JASOTZEKO AUKERA

PROMOZIOARI BURUZ

Zerk egiten du berezi Eibarko Errekatxu Berri promozioa?

Errekatxu Berrik hainbat gauza batzen ditu: kokapen estrategikoa, diseinu modernoa eta etxebizitzak, garajeak eta merkataritza-lokalak barne hartzen dituen eskaintza osoa. Aukera paregabea da Eibarren bihotzean etxea, negozioa jartzeko gunea edo aparkatzeko irtenbide praktikoak bilatzen dituztenentzat.

Zer abantaila eskaintzen dizkie kokapen horrek Eibarren bizi edo ekin nahi dutenei?

Kokapena ezin hobea da: zerbitzu eta gune komertzialetatik gertu dago, eta horrek egunerokotasuna errazten die bai hemen bizitzea aukeratzen dutenei, bai negozio bat ezarri nahi dutenei. Ondo konektatutako eremua da, Bidebarrietatik etxebizitzetarako sarbide zuzena duena eta proiektio handikoa.

ETXEBIZITZAK

Sustapen honetako etxebizitzek diseinu eta distribuzio modernoak dituzte. Zer alderdi nabarmenduko zenituzke etxe eroso eta funtzionala bilatzen dutenentzat?

Etxebizitzaren diseinua argi naturala maximizatzeko eta metro koadro bakoitza ahalik eta gehien aprobetxatzeko pentsatu da. Terraza handiak dituzte, kalitate handiko akaberak eta era guztietako familien beharretara egokitzen diren distribuzio moldakorrak. **Nola landu da erosotasunaren, energia-eraginkortasunaren eta diseinuaren arteko oreka etxebizitza horietan?**

Isolamendu termiko eta akustiko bikaina eta energia-kontsumo txikia bermatzen duten material eta eraikuntza-soluzio modernoak erabili ditu. Hori guztia, diseinu erakargarri eta gaurkotua sakrifikatu gabe.

GARAJEAK

Promozioan garajeak ere sartzen dira. Nola laguntzen du eskaintza horrek inguruko egoiliarren eta langileen bizi-kalitatea hobetzen?

Aparkatzea zaila izan daitekeen Eibar bezalako gune batean garaje propioa izatea abantaila handia da. Eguneroko estresa gutxitzen laguntzen du eta ibilgailuaren segurtasuna bermatzen du.

Zer irisgarritasun- eta segurtasun-maila eskaintzen dute garaje horiek etorkizuneko erosleentzat?

Garajeak erraz iristeko diseinatuta daude, arrapala zabalak eta ondo seinalatzatutako espazioekin. Gai-



Ibai-Ondo inmobiliariako Goizane Goikoetxea.

nera, segurtasun-neurriak dituzte, hala nola argiztapen egokia eta sarbidea kontrolatzeko sistemak.

LOKALAK

Zer aukera eskaintzen dizkiete Errekatxu Berriko merkataritza-lokalek enpresaburuei eta ekintzaileei?

Lokalek kokapen pribilegiatua dute mugimendu handiko eremu batean. Oso egokiak dira hurbileko negozioetarako, hala nola dendetarako, kafetegietarako edo zerbitzu profesioetarako; izan ere, etxebizitzetaz eta egoiliarrek eta bisitariek bisitatzen dituzten eremuez inguratuta daude.

Zure ustez, nola lagunduko dio sustapen honek Eibar-komertzialari?

Errekatxu Berrik, egoiliar berriak ez ezik, negozio-ideia berriak ere erakarriko ditu. Horrek eragin positiboa izango du ingurunean, enplegua sortuz eta inguruko jarduera ekonomikoa biziberrituz.

BALIO ERANTSIA

Zer mezu emango zenieke Errekatxu Berriko etxebizitza, garaje edo lokal batean inbertitzea pentsatzen ari direnei?

Aukera paregabe baten aurrean daudela esango nieke. Irtenbide modernoak, praktikoak eta kalitate handikoak eskaintzen ditu, emateko asko duen kokaleku batean. Urratsa emateko eta proiektu honen parte izateko unea da.



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

Loiola
Espacios para vivir

Euskararen Egunean parte hartzeko deia Euskalgintzatik

Datorren martitzenean, abenduak 3, Euskararen Nazioarteko eguna ospatuko dugula-eta, Eibarko Euskalgintzak dei egiten die euskaltzale guztiei egunerako antolatu duten ekitaldietan parte hartu dezaten. Batetik, 18:00etan hasita, herritar guztiei zabaldua egongo den Mintzodromoa egingo da Untzaga plazan. “Lau-naka eserita, eguneroko Eibarko gai arruntez hitz egingo dugu, euskaraz, berdin dio hizkuntza-mailak, berba egitea da kontua”, diote antolatzaileek. Eta, bestetik, 19:00etan, “Ixotu euskertia” ekintza egingo da harmailetan. Horretarako, argia da behar den gauza bakarra: “ahal dela etetik ekarri linternak, frontalak... eta horrekin koreografia polit bat osatuko dugu guztion artean”.



ILLUNABARRIAN

Abenduko ikastaroa

LEPOKOAK EGITEKO IKASTAROA Laura Albistegi (Gigil)



Data eta ordua: abenduaren 17an, 18:30ean.

Lekua: ...eta kitto! Euskara Elkarte (Urkizu 11).

Adina: gutxienez 7 urte, heldu batek lagunduta.

Prezioa: 5 euro laguneko, 4 bazkideentzat.

Izen-ematea: 943200918 deituz, edo elkarte@etakitto.eus helbidera idatzi.

Ezaugarriak: Ez da trebetasunik behar. Plaza mugatuak.



Kalean da azaroko Txikitto! aldizkaria

Joan den astean jaso zuten Lehen Hezkuntzako haurrek eskolan Txikitto! hilabetekariaren azaroko alea. Hilabeteko inkesta egitera Amañako herri-eskolara joan gara eta bertako ikasleekin jardun dugu natura eta ingurumenari buruz solasean. Horrez gainera, Aldatze ikastetxeko amama-ilobak elkartu ditugu elkarriketan, eta ez dira ohiko txiste, ipuin, denborapasa eta lehiaketarik falta. Urtea amaitu aurretik beste ale bat argitaratuko da, abendukoa.

IXOTU EUSKERIA!

Ez dein argixa emetau

Abenduak 3, martitzena
19:00etan Untzagako harmailetan
18:00etan Mintzodromoa Untzaga plazan

Eibarko Euskalgintza



leku berri bat Ego-Gain, 2
943 558728

TOPA-LEKU
taberna

egunero elkarrekin egoteko

AMETSA

Gin Bar

Jaietan gozatu
Ametza Gin Bar
erara

B *casa* **ANAKA**

.BAR.

Calbeton, 26

Ondo pasa
Sanandresak! **GOZATU
EGIZUZ
GUREKIN!!!**

Su Beroa

Bista Eder, 11
Tel. 943 47 77 79
suberoataberna@gmail.com

Gosariak · Pintxoak · Kazuellitak · Botatuk
Hamburesak · Asteburuko platerak · Entzurguak
Ospatu gurekin San Andresak!!! Entzuz kaldu 24. 943 70 13 23

albert
Armagin, 1 943 383 177
taberna

Sokoa Pub

ZAI-ZOI
EZDOK LABADERUA
KM.0 TABERNA
BITTOR SARASKETA. 1 BEHEA

T. Etxebarria, 18 - 1.

CASINO
ARTISTA
EIBARRÉS

Tfnoa. 943 20 71 90

“Gogor hasi beharko dugu saioa, kaña eman beharko diogu hasieratik, jendea bero etorriko baita”

GORKA TELLERIA eta GORKA BEATO • DJ-ak



San Andres eguneko gauean Untzagako karpa dantzan jarriko dute Gorka Telleria ‘Gorkuk’ eta Gorka Beatok. 00:40 inguruan hasita, bi DJ eibartarrek euren trebezia, jakintza eta gustu musikal gutzia herrikideen esku lagako dute, doinu ezberdinen baitan gorputzak mugi ditzaten.

Herrikideek hainbestetan eskatutako bikotea arituko da Untzagan. Horrela esan zuten Udaleko ordezkariak San Andres jailetako egitaraua aurkeztu zutenean, eibartarrek Gorku eta Beatoren saio bat ikusi nahi zutela azpimarratu baitzuten. Eurek, noski, atsegin handiz jaso dute eskaera eta gogotsu daude zapatuan dena emateko.

Nolako saioa prestatu duzue zapaturako?

G.T.: Normalean jartzen dudana baino funky gutxiago eta doinu ilunagoak jarriko ditut. Saioa kalean izanda, karpako eszenatokian, horrela egingo dut pixka bat aldatzeagatik.

G.B.: Egia esan, oraindik ez dakit zer jarriko dudan ere (barreak). 01:00etatik 03:00etara egongo gara eta jendea gogotsu etorriko dela pentsatzen dut. Beraz, gogor hasi beharko dugu saioa, kaña eman beharko diogu hasieratik. Gaur egun nahiko musika gogorra jarri ohi da, baina guk normalean ez dugu techno gogorrik jartzen, musika dantzagarriagoa jartzen dugu, baina kasu honetan bizi hasi beharko dugu saioa.

G.T.: Saioa luzeagoa izango balitz, beste modu batean planteatuko genuke (suabeago hasi eta erritmoa igo-

tzen joan), baina denbora gutxi da eta nahiko berandu gainera. Jendea bero etorriko da.

Beraz, zuen saioak tokiaren, orduaren eta bertan bilduko den jendearen arabera moldatzen dituzue?

G.B.: Bai, noski. Burua altxatu, dagoena ikusi eta horren arabera musika mota bat edo beste jartzen dugu. G.T.: Publikoan ikusten duzunaren arabera alde batera edo bestera jotzen duzu. Adibidez, alde batetik jo eta jendeak dantza egiteari lagatzen diola ikusten baduzu, beste bide bat hartzen duzu. Beti begiratu behar da.

Orduan, inprobisatu behar baduzue, nola prestatzen zarete aurretik?

G.T.: Saiotara musika nahikoa eraman behar duzu gauza bat edo beste gertatu daitekeela jakinik. Horrela, prest egon zaitezke saioan zehar bide bat edo beste hartzeko.

G.B.: Genero ezberdinetako musika eramaten dugu eta saioan zehar generoak txandakatzen joan gaitezke, hori da gakoa.

G.T.: Hain zuzen ere, hori da gu bion ezaugarrietako bat, ez garela genero bat jartzera mugatzen. House pixka bat jarri dezakegu, techno pixka bat, disko eta funky musika ere...

Bakoitza bere aldetik arituko zarete zapatuan?



Untzaga dantzan jarriko dute Gorku eta Beato DJ-ek. EKHI BELAR

G.B.: Denbora gehiago izango bagenu, hasieran bakoitz bere aldetik eta gero elkarrekin arituko ginateke, baina ez dugu nahikoa denbora izango.

G.T.: Bakoitzak ordubeteko saioa eskainiko du. Horrela gustorago geldituko gara biok.

Sanandresetako egitarauaren prentsaurrekoan Udaleko ordezkariak esan zuten jendeak zuen saioa eskatzen zuela. Nola hartu duzue hori?

G.B.: Primeran! Denetik egon behar dela uste dut. Zenbat aldiz izan dugu horrelakoetan musika jartzeko aukera? Herrikoak gara, jendeak ezagutzen gaitu eta primerako musika jartzen dugu. Herriko musika taldeei aukerak ematen zaizkien moduan, ondo dago guri ere horrelakoetan aritzeko aukera ematea.

G.T.: Niretzat demasa da Untzagan musika jartzea!
Musika taldeei edo bakarlariei DJ-ei baino aukera gehiago ematen zaizkie?

G.B.: Ez, baina bai. Jaietan eta horrelakoetan bandak ekartzen dituzte gehienetan.

G.T.: Dena dela, gauzak pixka bat aldatzen ari dira. Sanjuanetan, adibidez, Dantz-ekoak egon ziren eta ederra antolatatu zuten. Egia da, hala ere, normalean rock

kontzertuak eskaini izan direla. Agian normala da, ez dakit, baina bikaina da elektronikari ere tokia egitea.

G.B.: Gauza gehiago egin beharko lirateke. Gainera, gero eta jende gazte gehiago dago elektronika egiten.

G.T.: Horren adibide da SOBA. Hainbat saio antolatatu dituzte (Arraten, taberna batzuetan...) eta oso ondo egon dira.

Oinarrira joanda, zer da zehazki DJ batek egiten duena?

G.T.: DJ-a izatea ez da abesti-sorta bat jartzea. Hori Spotifyn zerrenda bat jarritz egin dezakezu. Agian asko da esatea publikoari bidai bat egiten lagundu nahi diogula, baina horrelako zerbait da.

G.B.: Bestalde, guk jartzen duguna publikoak ez du espero. Jendea ez dago ohituta horrelako musika entzutera. Hau da, talde bat entzutera bazoaz, badakizu talde horrek zein abesti jotzen dituen, baina DJ baten kasuan ez dakizu zein musika jarriko duen.

G.T.: Primeran dago jendeari espero ez duen musika jartzea eta zer gustatzen zaion ikustea. Jendeari dantza eginaraztea zoragarria da.

Elkarrizketa osoa: www.etakitto.eus

Domekako Bolunburu Memorialean Gipuzkoako txapela ere izango da jokoan

Goiz atletikoa izango da domekakoa Arrateko Olabe zelaian, bertan jokatuko baita Bolunburu Oroigarria krosaren 73. edizioa. Betiko lez, ez da lasterketa bakarra izango, baizik eta bederatzi guztira. Lehenengoa goizeko 10:30ean abiatuko da eta azkena, benjaminena, eguerdiko 13:00etan. Hasierakoan 16 urtetik beherakoek eta Masterrek hartuko dute parte, emakumezkoen mailan, 2.800 metroko distantzia osatzeko. Jarraian honakoak jokatuko dira: 10:50ean, 16 urtetik beherakoak eta Masterrak, baina gizonetzkoak, eta distantzia berean; 11:05ean, genero bietako 18 eta 20 urtetik beherakoek txanda izango da, 3.800 metrokoan. Goizeko 11:30ean hasiko da lasterketa nagusia, absolutu eta 23 urtetik beherakoek parte-hartzearekin, hor ere gizonetzko zein emakumezko bertan izango direlarik, 6.800 metro egiteko. Ondoren infantil mailako txanda izango da: 12:05ean neskak eta 12:20an mutilak, 2.400 metroko distantzia



burutzeko. Parte-hartzaile gazteagoak izango dira jarraian: alebin mailako neskak, 12:35ean hasita, eta mutilak, 12:50ean, bien kasuan 1.600 metro egiteko. Azkenik lehen aipatutako herriko benjaminena jokatuko da, 13:00etan hasita, 600 metroko ibilbidearekin. Goiz aproposa atletismoaz gozatzeko, Deporreko atletismoko eskutik.

Ganix Rodriguezek Euskal Herriko hiru-txirloko txapela jantzi du

Nagusitasunez irabazi du, gainera, txapel hori Asola Berrikoak: 27 txirlorekin, bosteko aldea atera diolako Mateo Guenaga bigarrenari. 21 txirlorekin sailkatu dira atzetik Oier Azumendi, Joseba Lazkano eta Asier Azkarate. Emakumezkoetan hiru bolariren arteko berdinketa eman da, tartean Enara Montiel eibartarra egonik; berarekin, 17 txirlorekin, amaitu dute Aretxabaletako Isana Gorosabelek eta Elgoibarko Aitziber Olaizolak. Eibartarrak izan dira nagusi binakako sailkapenean ere, hori bai Markinakoekin berdinduta: hor Ganix Rodriguezek eta Alex Camposek osatutako bikoteak aurrea hartu dio Mateo Guenagak eta Jabier Martinok osatutakoari, bikorte biak 41 txirlorekin. Taldekako sailkapen orokorra Markinako ordezkari entzat izan da, Aretxabaletako eta Eibarko Asola Berrikoen aurretik.

X
F. Calbeton, 12 943096884
OKINDEGIA / GOZOTEGIA
TXUTXE-DENDA
JANARIDENDA TXIKIA
XABALO
2024
Sanandresetan ZUEKIN

PUBLI RESA
agencia publicitaria

- merchandising
- serigrafia
- lanerako erropa

www.publiresa.com
publiresa@publiresa.com
943 701 497 / 615 799 419
Amagín, 3-5 behe

Arregi - Dominguez
Bidebarrieta, 4 Ego-Gain, 9
943 201138 943 203209
Mariskoak / Arrain freskoa/izoztua
Enkarguak / Ondarruko arraina

arraindegia

ek!

Zure publizitatea herriko aldizkarian

688 621 535
publizitatea@etakitto.eus

San Andres Aizkolarien Txapelketak 20. edizioa biziko du etzi

Errebal Plazak hartuko du San Andres egunean dagoeneko bi hamar-kadatik gora daraman Aizkolarien Txapelketa. Eguerdiko 12:00etan hasiko den jaialdirako bi lehiaketa prestatu dituzte: "Senior mailakoan hiru bikote izango dira lehian, eta beteranoetan beste bi izango dira, nor baino nor", diosku Eibarren herri-kirolen alde aspalditik diharduen Ernesto Ezpeleta "Bihurri"-k. Lehiaketa nagusian gaur egun punta-puntan dagoen Hodei bere semeak hartuko du parte, Otaño, Izeta, Saralegi, Etxeberria eta Re-kondorekin batera. Eta, Bihurrik berak dioen bezala, "100 urtetik gorako bikoteen arteko lehian", Mujika, Zaldua, Beltza eta berak



Bihurri aita-semeak eta Zaldua jaialdian parte hartuko duten 10 aizkolarien artean dira.

osatuko dute laukotea. Norgehiagoka nagusian "zortzina kortera" jardungo duten bezala, "gure artekoan egur handiak izango dira

protagonista, bi metroko hainbatekin". Jaialdi polita aurreikusten da, beraz, zenbait berritasun tartean dituela.

BOLINTXO
OKINDEGIA
GoZOTEGIA
Eguneroko ogia

Izadi
LORADENDA
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarquak etxera

EUSKO LABEL Baimendutako harategia
Euskal Okela Carnicería autorizada

Bidebarrieta, 20
Especialistak plater prestatu eta haragi bikainetar
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
943 20 16 69
f @Oberenaharategia

OBERENA HARATEGIA

ATEVN
HARATEGIA URDAITEGIA

EIBAR
Romualdo Galdos, 12
943 206184

MARKINA-XEMEIN
Artibal, 3 94 6167669

ONDARROA
Iparragirre, 10 94 6833523

BASERRIKO PRODUKTUAK
IBARKURUTZE
frutadenda

WHATSAPP BIDEZ ESKAERAK
680 38 20 91 / 664 71 86 99

SD Eibarko bigarren taldeak bikain ari dira maila berrietan ere

Jakina da mailaz igotzeko beharrezkoa dela aurretik denboraldi bikaina egitea, baina ez da hain ohikoa, behin goragoko maila batera igo ondoren, hor ere onenen artean

ibiltzea. Kasu horretan aurkitzen dira 2. RFEF mailara igotako talde biak eta 3. RFEF-era igotakoak. Gizonezkoen 2. RFEF Mailan dagoen gizonezkoen Eibar B (orain arte

Vitoria filiala zena) bigarrrena da, Arenasen atzetik: bederatzita partidu irabazi ditu, bi berdindu eta beste bi galdu; 20 gol sartu ditu, bakarrik zortzi jasota. Emakumezkoen 2. RFEF Mailan jokatzen duen Eibar B, bere aldetik, laugarren da sailkapenean, Athletic B, Europa eta Real Oviedoren atzetik; 19 gol sartu ditu orain arte eta bakarrik 12 jaso. Eta 3. RFEF Mailan debutatu duen Eibar C (lehengo Eibar Urko), hainbat denboralditan me-rezi izandako igoera azkenean lortu eta gero, berehala ohitu da maila berrira eta hirugarren da sailkapenean, Portugalete eta Leioaren atzetik; talde horrek 21 gol egin ditu eta 14 jaso.



Azkar egokitu dira maila berrietara SD. Eibarko bigarren eta hirugarren taldekoek.



Genuine Liga hasi du SD Eibar Fundazioak

Aurreko asteburuan jokatu zuen Genuine Ligako SD Eibar Fundazioak lehen fasea Tarragonan, hiru partidurekin. Oraingoan ez zuten zorte handirik izan eibartarrek eta Espanyol, Almeria eta Sevilla gehiago izan ziren, armaginei irabaziz. Bigarren fasea otsailaren 8-9ko asteburuan izango dute zain, orduko horretan Valentzian.

F Ligako SD Eibarko lau jokalarik euren selekzioen deia jaso dute

F Ligan jokatzen duen SD Eibarko emakumezkoen lehen taldeak denboraldiko bigarren geldialdia egingo duen honetan, Yerai Martinek prestatzen duen taldeko lau jokalarik euren selekzioekin izango dira tarte honetan. Alena Peckova, gainera, Eurokoparako play-offeko partidua izango du Txekiar Errepublikako taldearekin. Beste hirurak lagunarteko partiduak jokatuko dituzte etenaldi honetan: Espe Pizarrok Uruguaiako selekzio absolutuarekin, eta Margherita Monnecchik eta Eunat Astralagak Italiako eta Espainiako 23 urtez azpiko taldeekin, hurrenez hurren.

Txekiar Errepublikako selekzio absolutuaren parte izango da Peckova abenduaren 3an Portugalen aurkako bigarren itzulikoan. Monnecchik eta Astralagak gaur joko



tuko dute, lehenengoak Belgikaren kontra eta bigarrenak Alemania aurkari duela. Atezain euskaldunak abenduaren 2an beste partidu bat izango du, hor Frantziaren aurrean. Pizarrok, bestalde, azaroaren 30ean eta abenduaren 3an Txile izango du aurkari.

GASTROTEKA BOSSA
 Ego gain, z/g
Ongi etorriak zuen etxera!!
 943 20 67 53



URKIZU, 22 943128086
Aguñazpi
MENU BEREZIAK ENKARGUZ
 Plater kombinatuak, Razioak,
 Bokatak, Hanburgesak
Isnategian 07:00-00:00 | aztebarrietan 08:00-00:00



BAKO LEKU Ardotegia
 Ego Gain 2-4 Tel. 670 55 67 56



GORA GURIDI SAN ANDRES!



Untzaga, 11
Laurel & Hardy Pub



TXOKO
 ZIRIAKO AGIRRE, 1



Isasi, 3 / 943041645
PINTXOAK BAZKARIAK AFARIAK
GURE LEKU



TXOKO
 UNTZAGA PLAZA, 10



Ondo pasa jaixetan!

SHEIKOTIKAN ETXERA



San Andres jaizetan, 1
 www.sheikotikan.com



Ondo pasa!! **Jai zoriontsuak!**

Arkupe Taberna

Isasi, 2 689 057 149





Durangoko Azokak abenduaren 5etik 8ra zabalduko ditu ateak. DURANGOKO AZOKA

Euskal kulturarekin hartu-emanan Durangoko Azokan

Durangoko Azoka 59. edizioa iritsiko da aurten. Abenduaren 5etik 8ra egingo da Landako Gunean eta euskal kulturaren erakusleho handia izango da berriz ere. 274 erakusmahai jarriko dituzte 153 partaideren artean eta 933 kultur nobedade egongo dira. Gainera, lan berriak aurkezteko 200 ekitaldi programatu dira.

Abenduaren 5ean, eta ohikoa den bezala, Ikasle Goizarekin ekingo dio Durangoko Azokak 59. edizioari. Ikasleei zuzenduriko tailerak egingo dira, baina ateak zabalik egongo dira bisitari guztientzat.

Hurrengo egunean, hilaren 6an, Gazte Eztanda ospatuko da, gazteei zuzenduriko egitarauarekin. Gainera, gauean kontzertua egongo da Landako plazan jarriko duten karpan Nekktar, Naxker eta Xaukena Xauk taldeen eskutik.

Guztira 933 kultur nobedade egongo dira Durangoko Azokan eta 200 ekitaldi programatu dituzte lan berriak aurkezteko

Egun berezi bi horiez gain, egunero egingo dira ekintzak Durangoko Azokako gune ezberdinetan. Hala nola, Ahotsenean (Ahotsenea Literatura Landako Gunearen albo batean, parkeko eremuan instalaturik egongo da; Ahotsenea Musika, ostera, Plateruenean) 50 liburu eta 34 musika lan aurkeztuko dituzte (tartean Kokein talde eibartarraren 'Bidea da helmuga', hilaren 7an, 14:30ean); Irudienean, euskarazko zinemagintzaren plazan, 40 lan eskainiko dira; museoa Nestor Basterretxeari buruzko erakusketa dago ikusgai azaroaren 28az geroztik; Kabilia gunean euskalgintza eremu digitalean zabaltzeko egitasmoak ezaugarrituko ditugu, adibidez Codesyntax enpresa eibartarrak eta egoitza Eibarren duen Badihardugu Euskara Elkarrekin hitanoa erabiltzeko sortu duten AppaHi! aplikazioa; Saguganbaran haurrei eskainitako 25 ekitaldi programatu dira (aurkezpenak, irakurketak, tailerak...); Szenatikian, arte eszenikoen gunean, hamar konpainiak pieza laburrak eskainiko dituzte; eta Talaian Euskaraldiaren kantua aurkeztuko dute, Euskadi Literatur sariarekin solasaldia egingo da eta EITBekin lankidetzan sortu den BaDABil bideopodcast-aren azken saioa bertan grabatuko da, jendaurrean.

Sorkuntza lan horiek denetarikoko estilo eta gaiak jorratzen dituzte eta, tokikoak bezala, mundu mailakoak ere badira. Adibidez, Palestinari buruz zenbait lan aurkeztuko dira.

Horrez gain, Durangoko Azoka etxetik ere jarraitu ahal izango da. Izan ere, Azoka Telebistak 'Hartzea ematea DA' izeneko magazinea ekoiztuko du egunero, eta hainbat kanaletan ikusi ahal izango da saioa: tokiko telebistetan, azokako webgunean, YouTuben eta ETBn, hain zuzen ere.



IX. GILDA LEHIAKETA EIBARREN

ABENDUAK

10

11

12



TABERNAK

AKARA · AMETSA · BACOLEKU EGO GAIN ·
BACOLEKU URKIZU · BANAKA · BARATZE · BOSSA ·
GURIDI · KONTENT · KOSKOR · KULTU · LUŞAI ·
NUVOLA · TOPA-LEKU · TRINKETE



EIBARREN

AKARA

UNTZAGA, 4



AMETSA

T. ETXEBARRIA, 2



BACOLA

BARATZE

BIDEBARRIETA, 39



BOSSA

EGO GAIN, 7



TABERNAK

AKARA

AMETSA

BACOLEKU

EGO GAIN

BACOLEKU

URKIZU

BANAKA

BARATZE

BOSSA

GURIDI

KONTENT

KOSKOR

KULTU

LUSAI

NUVOLA

TOPA-LEKU

TRINKETE

KULTU

ZULOAGATARREN, 3



LUSAI

ERREBAL PLAZIA



SAN AN

ABENDUAK

10

11

12

LEKU EGO GAIN
EGO GAIN, 4



BACOLEKU URKIZU
URKIZU, 11



BANAKA
CALBETON, 26



GURIDI
UNTZAGA, 3



KONTENT
EGO GAIN, 6



KOSKOR
CALBETON, 6



NUVOLA
DRES PASEALEKUA, 3



TOPA-LEKU
EGO GAIN, 2



TRINKETE
ERREBAL, 24



TABERNENTZAT

SARIAK

1

HERRITARREK
AUKERATUTAKOA

150 €

TABERNETAN
BOZKATZEKO KUTXAK
ETA ORRIAK EGONGO
DIRA

EPAIMAHAIAREN SARIA:
TRADIZIONALA: 150 €
BERRITZAILEA: 150 €

2

EPAIMAHAIKIDEAK:
MIREIA ALONSO
JOSU MUGERZA
XABIER ALBIZU

BOZKETAN PARTE HARTZEN DUTEN BEZEROEN
ARTEAN ASTEBURUKO EGONALDIA ZOZKETATUKO DA
BI LAGUNENTZAT.

ANTOLATZAILEA:

 **eta kitto!**
euskara elkartea

LAGUNTZAILEAK:





Abendurako agenda anitza osatu du Immigrazio alorrak

Abenduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela eta, *AbenduAnitz* izenburuko egitaraua antolatu du Udaleko Immigrazio eta Kultura Aniztasun alorrak. Asaari Bibang aktorearen *Humor Negra* umorezko bakarrizketaekin hasiko da egitaraua. Saioa abenduaren 6an izango da, 19:00etan Coliseo antzokian, eta sarrerak dagoeneko salgai daude (10 euro, 7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Abenduaren 12an, Safia El Aadam idazle eta aktibista ezagunak. Eibar-ko Oinarrizko Lanbide Heziketako udal Institutuko ikasleekin identitate anitzei buruzko lanketa egingo du. Bestetik, Andretxean *Ispilua* erakusketa ipiniko dute ikusgai, abenduaren 16tik 30era. Eta, abenduaren 18an, erakusketa irekiera eta doku-foruma egingo dituzte bertan: Gipuzkoako SOS Arrazakeriaren eskutik *Chica seria y responsable* dokumentala ikusteko aukera egongo da (sarrera libre). Amaitzeko, abenduaren 19an, Coliseon, ZAS! Zurrumurruekin aurkako sarearekin batera antolatu duten *Atzoko eta gaurko migrazioak* solasaldia egingo da, Jon Maia bertsolari ezagunak gidatuta (sarrera libre).

Punk-rock jaia eta erromeria asteburu honetan Zaizoi tabernan

Barixakurako kontzertu bikoitza antolatu dute Ez Dok Zaizoi tabernan, 19:30ean hasita, Eskarmiento (punk-rock trio) eta Spungiforms (punk-rock covers, Ramones, Misfits, Eskorbuto...) taldeekin. Eta San Andres eguna girotzeko, berriz, 19:00etatik aurrera erromeria eskainiko du eMePebo5t taldeak.



Domekara arte joan daiteke Exfibar erakusketa ikustera

Domekaz gozotik Portalean ikus daiteke Exfibar 2024 LV. seilu-erakusketa. Arrate Filatelia Elkartearen urteroko hitzordurako aukeratu duten gai nagusia Filatelia eta Antzerkia izan da oraingo honetan, eta erakusketan zein horri lotuta kaleratu duten katalogoan gaiari eskainitako bilduma eta artikulu interesgarriak bildu dituzte. Erakusketa domekara arte bisitatu daiteke, baina gogoratu ordutegi berezian zabalduko dutela: gaur eta bihar, 18:00etatik 20:00etara; San Andres egunean itxita egongo da; eta domekan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte ateak (Argazkia: Eibarko Udala).



Lagunen aurrean aurkeztu du Kokeinek lan berria

Domeka eguerdian Eibarko Gaztetxera gerturatu ziren harrera ezinhobea egin zioten Kokein taldearen lan berriari. *Bidea da helmuga* izeneko diskoak atzo bertan ikusi zuen argia, baina lana aurkezteko ospakizunera joandakoek gozatu ederra hartu zuten abesti berriak zuzenean entzun eta dantzatuta. (Argazkia: Eider Iturriaga -Izarbe Photo)

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

7	8			3			
						2	6
		1	5	6			
	5			8			9
	4	7		5	3	2	
3			4				1
			7	4	9		
	2	5					
			2			3	6

D	C	B	L	D	A	D	
P	I	N	K	E	R	A	
S	O	L	V	E	R	E	
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		
B	O	L	E	S	A		

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

	9	4	6		1	8	
	1		5				
		5					1
9	8			2		3	
		2				6	
		6		3			4 2
5						2	
					9		8
	8	2		5	4	7	

soluzioa

B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I
B	Z	V	P	Z	P	C	I



AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK



Azaroak 28 / Abenduak 12

EGUENA 28

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaileentzat. Untzaga jubilatutik etxea.

EUSKARAREN HAMABOSTALDIA

18:30 Ana Goitiaren "Katana" bakarriketa. Doan (aforo mugatua). Eibarko Klub Deportiboa.



BARIXAKUA 29

MUSIKA

19:30 Punk Rock Party: Eskarmiento eta Spunkgiforms taldeen kontzertua. Zaizoi taberna.



ZAPATUA 30

ARGAZKI-ESTUDIOA

10:00 Argazki profesionala, Gabonetako dekoratuarekin, Einer Rodriguez Ponceren eskutik. Doan. Untzaga gizarte etxea.

MUSIKA

19:00 Erromeria, Emepebost taldearekin. Zaizoi taberna.

ASTELEHENA 2

BILERA IREKIA

16:30 Martxoaren 8ko lantaldearen bilera irekia, programazioa prestatzeko. Andretxea.

ALTXAU BURUA

18:00/20:00 "ZEOS" programa: osasun eta ongizate digitala" tailerra. Coliseo.

MARTITZENA 3

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

18:00 Helduentzako mintzodromoa, herritarrentzako irekia.
19:00 "Ixotu euskera! Argixa ez dadila emetau!" ekintza, Eibarko Euskalgintzaren eskutik. Untzaga.



ALTXAU BURUA

18:00/20:00 "ZEOS" programa: osasun eta ongizate digitala" tailerra. Coliseo.

EGUENA 5

INAUGURAZIOA

19:00/21:00 Basagunea. Errealgo Merkatu Plaza.



BARIXAKUA 6

BAKARRIZKETA

19:00 "Humor negra" ikuskizuna, Asaari Bibang aktorearekin. Coliseo.



ZAPATUA 7

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

DOMEKA 8

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30 Ume eta gurasoentzat jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzan dabilzaten umeentzat (2-5 urte). Ipurua kiroldegia.

ASTELEHENA 9

ALTXAU BURUA

18:00/20:00 "ZEOS" programa: osasun eta ongizate digitala" tailerra. Coliseo.

MARTITZENA 10

ALTXAU BURUA

18:00/20:00 "ZEOS" programa: osasun eta ongizate digitala" tailerra. Coliseo.

EGUENA 12

EUSKARAREN HAMABOSTALDIA

18:00 "Euskalgintza eta feminismoa" hitzaldia, Lorea Agirre Dorronsoro eta Idure Eskisabel Larrañagaren eskutik. Doan. Andretxea.

AGURTZEN

18:00/20:00 Aurretiako borondatei buruzko informazio zerbitzua, Ikasten elkartearen eskutik. Untzaga gizarte zentroa (Arrate aretoa).

ERAKUSKETAK

Azaroaren 29ra arte:

- "LUMINESZENTEAK". (Andretxea)

Azaroaren 30era arte:

- MARCEL VAN BALKEN-en argazkiak. (Deporreko taberna)
- VIRGINIA ARAKISTAIN-en argazkiak. (Portalea taberna)

Abenduaren 1era arte:

- "EXFIBAR 2024 - LV. Seilu erakusketa", Arrate Filatelia Elkartearen eskutik. (Portalea)

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA
- 29an (BARIXAKUA)
20:30 Ermua Antzokia
"Miñán" / Artedrama
konpainia

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **30ean:** 16:30, 19:30, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00

"Anora"
KOMEDIA



2024/AEB/138'
Zuzendaria: Sean Baker
Protagonista: Mikey Madison,
Mark Eydelshteyn, Yuriy Borisov
Prostituzioa/Drama

2 ARETOA

- **30ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **1ean:** 17:00, 20:00
- **2an:** 19:30 (1 Aretoa)

"Pídeme lo que quieras"
DRAMA



2024/Espainia/114'
Zuzendaria: Lucia Alemany
Protagonista: Gabriela Andrada,
Mario ermito, Paco Tous
Erromantzea/Erotikoa

ANTZOKIA

- **30ean:** 16:00, 19:15, 22:30
- **1ean:** 16:30, 20:00
- **2an:** 19:30 (2 Aretoa)

"Wicked"
KOMEDIA



2024/AEB/160'
Zuzendaria: Jon M. Chu
Aktoreak: Cynthia Erivo, Ariana
Grande, Jonatohan Bailey
Musikala/Fantastikoa

**TAXI LIZENTZIA
SALGAI**

Elbar | Erretiroogatik

682 289 446

**Diru-sarrera ziurtatu
eta frogagarriak**

Bezere-zorroa

Irudiko autoa lizentziarekin
batera salduko da

Roberto Isasi Gisasola

4. URTEURRENA
2020/11/27

Gurekin beti
hemendik eta
izarretaraino

- ETXekoak -

Nicolas Zurutuza Otxandorena

4. URTEURRENA
2020/11/29

"Gure bihotzean
betirako eramango
zaitugu"

- ETXekoak -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **ARIADNA**, gaur urtetxua beteko dozu eta. Pozik eta zoragarri bizitzia opa deusugu. Amama eta amaren partez.



Zorionak, **MARKEL**, abenduaren 2xan 6 urte beteko dozuelako. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AIERT**, gaur urtia betetzen dozu eta! Segi hain alaixa izaten. Patxo super Potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **ANE** Artetxe, etzi 8 urte beteko dozuz eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Aizea eta Maialenen partez.



Zorionak, **TXOMIN!** Astelehenian 6 urte beteko dozuz eta! Jarraitu beti bezain irribarretsu!!! 6 musu haundi Pello eta Elixen partez.



Zorionak, **UNAX!** Zapatuan 7 urte beteko dozuz eta. Asko maitte zaittugu. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **LUCIA**, astelehenian 13 urte egingo dozuz eta. Bikaiña zara! Aitta, Ama, Paula eta Amamaren partez.



Zorionak, Tia **KONTXA**, zure 100. urtebetetzian. Famelixaren partez.



Zorionak, **KONTXA!** Zentenaarixo alaixena opa deusugu. Mirtha eta Ipuruako zure kuadrilla, maittasunez.



Zorionak, **MALEN**, astelehenian 7 urte egingo dozuz eta. Egun zoragarria pasa! Musuak famelixaren eta, batez be, **JUNE**ren partez!!!



Zorionak, **MARLENE** (43 urte) eta **MANUEL** (12 urte). Zuentzat, bikote, Alex eta Rosario Estevez-en famelixaren partez.



Maria Elcoro-Iribe Osa

2. URTEURRENA
2022/12/01

“Denbora aurrera doa, baina zure oroitzapenak gugan dirau”
ASKO MAITE ZAITUGU
- ETXEXOAK -

BERE ALDEKO MEZA
abenduaren 1ean,
domeka, 12:00etan,
Karmengo Amaren Eliz Parrokian





Julio Abraham Del Río

1. URTEURRENA
2023/11/29

“Ez ditugu inoiz ahaztuko izan ditugun ilusioa eta bizipoza”

- GEMA -



Iragarki laburrak



943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.3. Konpartitzeko

- Pisukide baten bila nabil Eibarren. enorahenriquezsistia-ga@gmail.com

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Tailer mekanizatu salgai. 667895597.

3.2. Errentan

- Lokala atokagai Urkizun. 35 metro karratu. Komuna, ura eta argiarekin. 685758326.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642431753.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 669181717.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 632768653.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. 638413158.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka edo interna. 639107272.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. 649623854.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baita gauez ere. Orduka. 631425686.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 631907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 642044618.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. 635944602.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 604205271.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613215006.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean nagusiak zaintzeko. Osasun ziurtagiriarekin. 642855788.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632844780.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta ospitalean ere. 632768653.

4.2. Langile bila

- Asteburuetarako salako zerbitzari bila gabiltza. Ez da esperientziarik behar. Giro ona!! 615009958.
- Ileapaindegirako laguntzailea behar da. Jornada erdirako. 619928881.
- Administraria behar da astean zehar 8 ordu egiteko Elgoibarko enpresa batean. Bidali curriculum-a: info@emaergonomia.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

GORA SANANDRESAK!



Azken etxebizitza, garaje eta lokalak eskuragarri Eibarko erdigunean



BISITA EZAZU GURE PISU PILOTU BERRIA

3 logelako etxebizitzak: 285.000€tik aurrera



Informa zaitez
loiola.com
900 102 220

 **Loiola**
Espacios para vivir



EIBAR

HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

Gure bokazioa, kalitatezko odontologia



Kontsultatu hemen
gure webgune
eguneratua



📍 San Agustín Kalea, 4 behea ezkerrean (Eibar)

☎ 943 537 076 · 688 884 808

🌐 www.eibarclinicadental.com

R.P.S. 72/19 MANTAN E. INIGUEZ - ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA